



AGINDUA, BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO
SAILBURUARENA, EMAKUMEEN
AURKAKO INDARKERIA
MATXISTAREN BIKTIMEN SEME-
ALABA UMEZURTZENTZAKO
DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DUEN
DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ
AURRETIK ONARTZEN DUENA.

ORDEN DE LA CONSEJERA DE
IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS
SOCIALES, POR LA QUE SE APRUEBA
CON CARÁCTER PREVIO EL
PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE
SE REGULA LA AYUDA ECONÓMICA
PARA LOS HIJOS E HIJAS HUÉRFANAS
DE VÍCTIMAS MORTALES DE LA
VIOLENCIA MACHISTA CONTRA LAS
MUJERES.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte
Politiketako sailburuaren 2023ko
maiatzaren 25eko Agindua bidez,
emakumeen aurkako indarkeria
matxistaren biktimen seme-alaba
umezurtzentzako dirulaguntza arautzen
duen dekretu-proiektua egiteko
prozedura hasi zen.

Mediante la Orden de 25 de mayo de 2023,
de la Consejera de Igualdad, Justicia y
Políticas Sociales, se inició el
procedimiento de elaboración del Proyecto
de Decreto por el que se regula la ayuda
económica para los hijos e hijas huérfanas
de víctimas mortales de la violencia
machista contra las mujeres.

Xedapen Orokorrak Egiteko
Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022
Legeak 12. artikuluan xedatzen duenez,
xedapen orokorrak egiteko prozedura
xedapen horien gaiaren gainean
eskumena duen saileko sailburuaren
aginduz hasiko da.

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del
Procedimiento del Elaboración de
Disposiciones de Carácter General
dispone, en su artículo 12, que “el
procedimiento de elaboración de las
disposiciones de carácter general se
iniciará por Orden del Consejero o
Consejera titular del Departamento
competente por razón de la materia sobre
la que versen”.

Lege horren 15. artikuluan ezarritakoaren
arabera, xedapen orokorren proiektuak
idatzi ondoren, dagozkion negoziazio-,
entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin
aurretik, hasteko agindua eman duen
organoak aldeaz aurretik onartu beharko
du testu artikulatua.

De conformidad con lo establecido en el
artículo 15 de dicha Ley “una vez
redactados los proyectos de disposiciones
de carácter general, antes de evacuar los
trámites de negociación, audiencia y
consulta que procedan, el texto articulado
correspondiente deberá contar con la
aprobación previa acordada por el órgano
que haya dictado la orden de inicio”.





Adierazitakoaren ondorioz, honako hau

En virtud de lo anteriormente expuesto,

EBAZTEN DUT:

RESUELVO:

Lehena.– Aldez aurretik onartzea emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimen seme-alaba zurtzentzako laguntza ekonomikoa arautzen duen dekretu-proiektua.

Primero. - Aprobar con carácter previo el Proyecto de Decreto por el que se regula la ayuda económica para los hijos e hijas huérfanas de víctimas mortales de la violencia machista contra las mujeres

Bigarrena.- Dekretu-proiektuaren prozedura izapidetzen jarraitzeko agintzea, Hasteko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideekin bat etorritz, dekretua onartzeko ondorioetarako.

Segundo. - Ordenar la continuación de la tramitación del procedimiento del proyecto de decreto, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de Inicio y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento del Elaboración de Disposiciones de Carácter General, a los efectos de la aprobación del decreto.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua

La Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

NEREA MELGOSA VEGA



XX/XXXX DEKRETUA, XXaren XX(e)koa, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duena.

Bide luzea egin da adingabeak amaren edo tutorearen aurkako indarkeriaren zuzeneko biktimatzat har daitezen, eta, hartara, laguntza eta babes osoa behar dutela aitortu dadin.

Azken urteotan, amaren aurkako indarkeriaren lekuko hustzat hartzetik haiek ere indarkeria horren zuzeneko biktimatzat hartzera igaro gara. Ikuspegi-aldaketa horrek legegintza-aurrerapenak ekarri ditu, hala nola Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 1.2 artikulua aldatu zuena, zeinaren bidez berariaz aitortu baitzen adingabeak ere familia-harremanen eremuko genero-indarkeriaren biktima direla.

Funtsean, adingabeak amaren edo tutorearen aurkako indarkeriaren zuzeneko biktimatzat hartzeko, lehenik eta behin onartu behar da aipatutako indarkeriak adingabeen ongizate emozionalean eta garapen pertsonalean eragina duela eta baldintzatu egiten dituela bi alderdi horiek. Indarkeria-ingurune batean bizitzearen ondorioz, osasun-arazo larriak izan ditzakete adingabeek. Horrez gain, erasotzaileek emakumea kaltetzeko eta mende hartzeko erabili ohi dituzte. Beraz, argi dago haiek ere biktima direla. Gainera, indarkeria-ingurune batean hazi diren adingabeen kalteberatasun handia areagotu egiten da baldin eta ama hiltzen bada, aita edo amarekin bizi ala ez harekin bikote-harreman afektiboa izan duen pertsonak erailda.

Adingabe horiek beren erreferenteen aurkako indarkeriaren zuzeneko biktima gisa ikusarazteko, emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintzen ondorioz umezurtz dauden adingabe guztiak hartu behar dira kontuan, ez bakarrik bikotekidearen edo bikotekide ohiaren ekintzen ondorioz umezurtz daudenak.

Halako krimen traumatikoek min izugarria ematen dieten adingabeei, haurtzaroa eta nerabezaroa urratzen dietelako. Gainera, inpaktu psikologiko eta emozional handia eragiten diete, eta horrek zaildu egiten die beren bizitza bete-betean garatzea. Desanparo-eta babesgabetasun-egoeran geratzen dira, eta haien bizitza nabarmen aldatzen da: kasu-gehienetan, senideekin bizitzera joan behar izaten dute, eta senide horiek maiz ez dute baliabide ekonomiko nahikorik arreta egokia emateko. Are gehiago, batzuetan, gizarte-zerbitzuen mende geratzen dira adingabeak.

Umezurtz horiek bizitza bete-betean eta askatasunez eta berdintasunez garatuko badute, ezinbestekoa da jasan duten indarkeriak eragindako eta amaren heriotzak areagotutako kalteberatasun handiko egoera gainditzea eta, ahal den neurrian, erreparazioa jasotzea.

Botere publikoen lehentasunezko betebeharra da adingabe horiek babestea, hala aitortzen baitu Espainiako Konstituzioak 39. artikuluan. Halaber, haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren kontra borrokatzea giza eskubideen arloko nahitaezko betebeharra da. Hala, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren zioen azalpenaren arabera, «Botere publikoak ezin dira gelditu egon genero-indarkeriaren aurrean, indarkeria horrek beste edozerk baino gehiago erasotzen baititu Espainiako Konstituzioak aldarrikatutako oinarriko eskubideak, hala nola askatasuna, berdintasuna, bizitza, segurtasuna eta bereizkeriarik eza. Konstituzioaren 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, botere publiko horiek dute ekintza positiborako neurriak hartzeko betebeharra, eskubide horiek benetakoak eta eragingarriak izan daitezen, eskubide horien osotasuna eragotzi edo zailtzen dituzten oztipoak kenduz».

Emakumearen aurkako indarkeria eta etxe-indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak, 2011ko maiatzaren 11koak, eta Espainian 2014an berretsia, emakumearen aurkako indarkeriaren biktima guztiak ikuspegi integratzaile batetik babesteko esparru orokor bat ezartzen du, zeinean indarkeria horren ondorioz hildako biktimen seme-alabak sartzen baitira.

Bestalde, 2017ko irailean sinatutako Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunak adingabeen laguntza eta babesa areagotzeko neurriak jasotzen ditu 4. ardatzean. Adingabeak berariaz babesteko, lehenengo eta behin, genero-indarkeriaren zuzeneko biktimatzat hartu behar dira, eta, babes hori bermatzeko, adingabeei laguntza eta babesa emateko neurriak zabaldu eta hobetu behar dira, eta prestazio berriak ezarri behar dira genero-indarkeriaren ondorioz umezurtz daudenentzat; adingabeen zaintzari buruzko neurri zibilak berrikusi behar dira; hezkuntza-eremuko indartze-jarduketak sustatu behar dira, eta familia-elkarguneak genero-indarkeriari lotutako kasuetan espezializatzea bultzatu behar da.

Horiek horrela, lege hauetan islatu da, besteak beste, adingabeei laguntza eta babesa emateko neurriak zabaldu eta hobetu izana: Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan, Genero-indarkeriaren eta emakumeen kontrako beste indarkeria mota batzuen biktima izan direnen seme-alaben zurtasun-egoera hobetzeko martxoaren 1eko 3/2019 Legean eta Genero-indarkeriaren biktima diren umezurtzen babesa hobetzeko martxoaren 21eko 2/2022 Lege Organikoan.

Bestalde, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1 artikulua Espainiako Konstituzioan xedatutakora jotzen du berdintasunerako eta sexuagatiko diskriminaziorik ez izateko eskubidea aldarrikatzeko. Esparru horretan txertatzen da martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistatik Gabe bizitzeko Legearen Testu Bategina onartzen duena. Lege horretan, lehentasunezko helburutzat ezartzen da haur eta nerabeei babes handiagoa ematea, eta xedatzen da administrazio publikoek bermatu behar dutela biktima horiei egokitutako neurri edo zerbitzuak daudela.

Adingabeak eta, zehazki, adingabe umezurtzak babesteko neurri horien barruan dago emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistatik Gabe bizitzeko Legearen Testu Bateginaren 61.4 b) artikuluan aurreikusitakoa.

Dirulaguntzaren oinarrian dago seme-alabak emakumeen aurkako indarkeria matxistaren zuzeneko biktimatzat hartzea, eta, laguntzari esker, kaltearen erreparazioa gauzatu ez ezik, beste betebeharrak ere bete ahal izango da: hildako biktimen seme-alaben babesa eta laguntza indartzea, haien egoera bereziki ahula dela eta.

Beraz, abiapuntua da indarkeriaren kontzeptua zentzu zabalean ulertzea. Alegia, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriara mugatu beharrean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistatik Gabe bizitzeko Legearen Testu Bateginak 54. artikuluan definitutako kontzeptua hartzen da kontuan. Ildo horretan, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren zuzeneko biktima izan arren 1/2004 Lege Organikoan sartuta ez dauden guztiei babesa eman nahi zaie, eta aurrerapausoak eman nahi dira emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztiei tratamendu integrala ematea ahalbidetuko duen esparru arautzaile bat sortzeko bidean.

Pertsona horiek zailtasun eta oztopo ugari izaten dituzte maila psikologikoan, burokratikoan, familiarrean eta sozialean, ez bakarrik amaren edo tutorearen heriotzaren

unean, baita ondorengo urteetan ere. Beraz, eragin zaien kalteari ahal den neurrian erreparazioa emateko balio du laguntzak.

Dekretu honek Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistarik Gabe bizitzeko Legearen Testu Bateginaren 61.4 b) artikuluan jasotako aurreikuspena garatzen du, eta haren helburua da, besteak beste, laguntza arautzea, haren onuradun izateko baldintzak ezartzea eta laguntza emateko prozedura zehaztea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba adingabe umezurtzei erreparazioa emateko premian arreta jarrita. Gainera, espedienteak eskatzeko eta kudeatzeko sistema sinplifikatu bat ezartzen da, dauden aukera teknikoek ahalbidetzen duten heinean, Administrazio Publikoak nahitaez bete behar dituen efizientzia- eta efikazia-helburuak lortzeko.

Onuradunak 18 urte bete arte emango da dirulaguntza, eta urtero ordainduko da. Horretarako, ezinbestekoa izango da dirulaguntza jasotzen duen pertsona Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea eta han errolatuta egotea eskaera egiten den unean eta dirulaguntza baliatzen den aldi osoan. Era berean, aurreikusten da kalteberatasun handiko kolektiboetako pertsonak, hau da, adingabeak izanda indarreko legeriaren arabera mendekotasuna edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortu zaien umezurtzek, gehienez ere 25 urte bete arte jaso ahal izango dutela laguntza. Halaber, ikasketa akademikoak edo prestakuntza-ikasketa arautuak egiten ari direnek ere gehienez ere adin horretara arte jaso ahal izango dute laguntza.

Era berean, aurreikusten da onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateko baldintza betetzetik salbuetsita egotea, arrazoi sozialak direla medio.

Azkenik, aldi baterako neurri berezi bat aurreikusten da: 10.000 euroko ordainketa bakarra, indarrean egongo dena dekretua indarrean jarri eta bi urteko epean. Zehazki, aurreikusten da diru kopuru hori ordaintzea baldin eta ama emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintzen ondorioz hil bada 2003ko urtarrilaren 1etik dekretua indarrean jarri aurreko urtera bitartean. Lehen data hori hartu da erreferentziazat, hain zuzen ere, une horretatik aurrera hasi zirelako zenbatzen genero-indarkeriaren biktimak.

Azken batean, dekretu hau beste urrats bat da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba adingabe umezurtzei babesa eta laguntza emateko, eta emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzak kalte handia eragiten dion kolektibo horren alde hainbat eremutan ezarri diren hobekuntza-neurrien ekintza-eremuan kokatzen da.

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2023ko xxxxxaren x(e)(a)n egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta helburua.

1.– Dekretu honen xedea da arautzea emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistarik Gabe bizitzeko Legearen Testu Bateginak 61.4 b) artikuluan aurreikusia, eta zehaztea laguntza emateko baldintzak eta aplikatu beharreko prozedura.

2.– Dirulaguntzaren helburua da umezurtzei laguntza ematea, beren bizitza garatu dezaten, eta, ahal den neurrian, heriotzak eragin duen kaltea erreparatzen laguntzea.



2. artikulua.– Kontzeptuak.

Dekretu honen ondorioetarako:

1.– Seme-alaba umezurtza aipatzean, aipamenak barnean hartuko ditu bai hildako emakumearen seme-alabak, haien filiazioaren legeko izaera edozein dela ere, bai haren tutoretzapean dauden 18 urtetik beherako pertsonak.

2.– Ama aipatzean, beraz, heriotzaren unean adingabearen legeko tutoretza zuen emakumea ere egongo da barnean hartuta.

3.– Emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat hartuko da Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistarik Gabe bizitzeko Legearen Testuateginaren 54. artikuluan ezarritako indarkeria.

3. artikulua.– Onuradunak.

1.– Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzak izan daitezke laguntzaren onuradun, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Amaren hiltzean 18 urte bete gabe izatea.

b) Eskatera egitean 21 urte bete gabe izatea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) edozein udalerritan bizitzea eta han erroldatuta egotea, eskaera egitean eta baita laguntza jaso bitartean ere, etenik gabe, salbu eta Dekretuaren 4.2 b) artikuluan jasotako kasuan.

Era berean, beharrezkoa da emakume biktima, hil zenean, EAEko edozein udalerritan bizitzea eta han erroldatuta egotea edo, bestela, EAEko edozein udalerritan bizitzea eta han erroldatuta egotea, bost urtez jarraian, hil aurreko hamar urteetan.

2.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzaren onuradunak salbuetsita daude indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukizetik, bai laguntza eskuratzeko, bai hura kobratzeko.

3.– Prestazioa sorrarazi duen emakume biktimaren heriotzaren erantzule deklaratu duten pertsonak ezin izango du dirulaguntza jaso.

4. artikulua.– Laguntzaren iraupena.

1.– Laguntza urtero sortu eta ordainduko da, eskaera egiten den urtetik hasi eta onuraduna adin-nagusitasunera iristen den urtera arte, hura barne, edo 25 urte betetzen dituen urtera arte, betiere hurrengo apartatuan jasotzen diren egoeretako batean badago.

Aurrekoa gorabehera, eskaera 19 urte betetzen dituen urtetik 21 urte bete bitartean egiten bada, ordainketa bakarra egingo zaio, eskaeraren urteko zenbatekoari dagokiona, salbu eta hurrengo apartatuko egoeretako batean badago.

2.– Onuraduna egoera hauetako batean badago, gehienez ere 25 urtera arte (adin hori barne) jasoko du laguntza, eta urtero kobratuko du:

a) Adingabea izanda, mendekotasun-egoera edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortzen bazaio, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeari eta hura garatzen duen



araudiari jarraikiz.

b) Ikasketa akademiko arautuak egiten ari bada, hurrengo apartatuan ezartzen diren baldintzetan.

3.– Ikasketa akademiko araututzat hartzen dira Hezkuntza Ministerioak edo, hala badagokio, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurreikusitako eta horretarako akreditatuta dauden zentro publiko edo pribatuek emandako irakaskuntzak, bai eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako prestakuntza-ikastaroak ere.

Onuradunak inguruabar hori egiaztatu beharko du 19 urte betetzen dituen urteko lehen hiruhilekoan, eta hurrengo urteetan ere gauza bera egin beharko du, epe berean, adierazitako gehieneko adinera arte.

19 urte betetzen diren urtean edo ondorengo ekitaldietan ez bada aipatutako inguruabarra egiaztatzen, laguntza eten egingo da. Egoera hori ezarri diren epe eta baldintzetan egiaztatzean, berriro ekin ahal izango zaio laguntza ordaintzeari, adierazitako gehieneko adinera arte.

EAetik kanpo ikasketak egiten ari direnak salbuetsita egongo dira EAEn etenik gabe bizitzearen baldintza —3.1.c) artikuluan aurreikusia— betetzetik.

5. artikulua.– Zenbatekoa zehaztea.

1.– Laguntzaren zenbatekoa hau izango da: ordainketa egiten den ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren (IPREM) urteko balioaren % 80.

2.– Onuradunari mendekotasun-egoera edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortzen bazaio Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeari eta hura garatzen duen araudiari jarraikiz, bikoiztu egingo da aurreko apartatuan aurreikusitako zenbatekoa.

Eskaera egin ondoren desgaitasuna edo mendekotasuna aitortzen bazaio, adingabea izanik, eskubidea izango du inguruabar hori egiaztatu ondoren sortzen diren ordainketei dagokien igoera aplikatzeko.

6. artikulua.– Prozedura.

1.-Prozedura alde batek eskatuta hasiko da, onuradunak aurkeztutako eskaeraren bidez, jarduteko gaitasuna badu, edo, bestela, haren legezko ordezkariak aurkeztutako eskaeraren bidez.

Eskaera ezin izango du emakume biktimaren heriotza eragin duenak aurkeztu onuradunaren ordezkari gisa.

2.– Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen zuzendaritzari dagokio dekretu honetan aurreikusitako dirulaguntza kudeatzea, hura baita organo kudeatzailea.

3.– Dekretu hau indarrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera irekiko da laguntza-eskaera aurkezteko epea.

4.– Laguntza lortzeko eta laguntzari eusteko baldintzak egiaztatzeko agiriak gizarte-politiken arloan eskumena duen sailburuaren Agindu bidez onartuko dira.

5.- Eskaerak erantzukizunpeko adierazpen bat izango du, gutxienez alderdi hauek jasoko

dituena:

a) Egiazkoak direla eskaerako eta harekin batera doan dokumentazioko datuak, eta betetzen direla laguntzaren onuradun izateko baldintzak.

b) Konpromisoa hartzen duela laguntza kudeatzen duen Zuzendaritzari berehala jakinarazteko eskaeran adierazitako daturen bat aldatzen bada edo laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan zerbait aldatzen bada.

c) Ez zaiola ezarri dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zehapen penal edo administratiborik, eta ez dagoela horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan ezarritako itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean dagoen ala ez. Mota horretako prozedura batean badago, zein prozedura den edo diren adieraziko da.

e) Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako egoeretako batean —e) apartatua salbuespena da—.

6.-Eskura dauden elkarreragingarritasun-mekanismoen bidez egiaztatuko da laguntza lortzeko eta hari eusteko baldintzak betetzen diren, salbu eta eskatzaileak horri uko egin badio; kasu horretan, eskatzaileak berak egiaztatu beharko ditu.

Ezin badira dokumentuak lortu, arrazoia edozein dela ere —baita agiriak lortzeko bideragarritasun teknikorik ez izatea ere—, eskatzaileak aurkeztu beharko ditu, organo kudeatzaileak ematen dion epean.

7.— Dirulaguntzaren eskaera elektronikoki edo aurrez aurre aurkez daiteke, Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean herritarrentzako zerbitzuak dituen bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan.

8.-Eskaera izapidetzeko eta agiriak aurkezteko kanal presentziala edo elektronikoa erabiltzeak ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideetan kanal bera erabiltzera, eta edozein momentutan alda daiteke.

Eskaera aurkeztu ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egin ahal izango dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>.

9.— Laguntzaren informazio-fitxa helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1235701>

Han, eskuragarri egongo dira eskaera, eskaera betetzeko jarraibideak eta laguntza lortzeko eta hari eusteko baldintzak egiaztatzeko agiriak.

7. artikulua.— Eskaera zuzendu eta hobetzea.

Organo kudeatzaile eskudunak egiaztatuko du aurkeztutako dokumentazioa, eta, eskaeran akatsen bat edo okerren bat dagoela edo dokumenturen bat falta dela ikusten badu, interesdunari eskatuko dio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo falta diren nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta ohartaraziko dio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua araberak emandako ebazpenaren bidez.

8. artikulua.– Prozedura ebaztea.

1.– Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen zuzendariaren banakako ebazpen baten bidez emango da eskatutako laguntza, eta, hala badagokio, ukatuko.

2.– Laguntza emateko ebazpenak aitortuko du onuradunak eskubidea duela laguntza urtero jasotzeko, eskatzen den urtetik 18 urte bete arte, edo 25 urte bete arte dekretu honetan aurreikusitako kasu eta baldintzetan, betiere horretarako ezartzen diren baldintzak betetzen baditu.

Laguntza 19 urte betetzen dituen urtetik 21 urtera bitartean eskatzen bada, ebazpenak aitortuko du onuradunak eskubidea duela dirulaguntza eskatu den urteari dagokion zenbatekoa ordainketa bakarrean jasotzeko, salbu eta pertsona hori 4.2 artikuluan aurreikusitako egoeretako batean badago, kasu horretan gehienez ere 25 urtera arte jaso ahal izango baitu laguntza.

3.– Ebazteko eta ebatzitakoa eskatzaileari jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, laguntza kudeatzen duen organoaren erregistroan eskaera sartu den egunetik aurrera. Epe hori igarota ebazpenik jakinarazi ez bada, laguntza-eskaera ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.9 artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.– Emandako ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke gizarte-politiken arloan eskumena duen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

9. artikulua.– Baldintzak egiaztatzea.

1.– Urtero, laguntza ordaindu aurretik, organo kudeatzaileak ofizioz egiaztatuko du onuradunak laguntza jasotzeko baldintzak betetzen jarraitzen duela, salbu eta onuradunak bere eskaeran berariaz uko egin badio edo ezin izan bada egiaztapena egin. Kasu horretan, egiaztatzeko eskatuko zaio.

2.–Ikasketak egiten aritzeagatik laguntza luzatzen bazaio, onuradunak egiaztatu beharko ditu baldintzak urtero, 4.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Urteko laguntza jasotzen jarraitzeko aurreikusitako baldintzetako bat betetzen ez bada, laguntza jasotzeko eskubidea azkendu egingo da, eta ofizioz deklaratu da laguntza jasotzeko eskubidea galdu duela. Hori baino lehen, entzunaldi-izapidea emango zaio interesdunari, hala badagokio.

4.– Organo kudeatzaileak kautelaz etengo du kasuan-kasuan aitortu den laguntzaren ordainketa, ebazpen judizial bat dagoenean, ezartzen duena arrazoizko zantzuak daudela onuradun ikertua emakumearen heriotzaren erantzule dela uste izateko, baldin eta biktimak sorrarazi badu prestazioa. Eteteak ondorioak izango ditu inguruabar horren berri eman den urteko lehenengo egunetik aurrera.

10. artikulua.– Laguntza ordaintzea.

1.–Laguntzaren ordainketa urtero egingo da, eta ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen zenbatekoa ordainduko da, banku-transferentzia bidez, horretarako emandako kontu korrontean.

2.– Laguntza ordaindu ahal izateko, onuradunak Ogasun eta Finantza Sailaren Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egon behar du. Erregistratuta ez badago edo Ogasun eta Finantza Sailaren Hirugarrenen Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi baditu, helbide hauetara jo dezake alta emateko edo datuak aldatzeko:

– Aurrez aurreko kanala erabiliz:

https://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta_terceros/eu_7999/adjuntos/ALTA.pdf helbidean jasotako ereduaren arabera formularioa.

– Kanal elektronikoa erabiliz:

https://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta_terceros/eu_7999/adjuntos/ALTA.pdf helbidean jasotako ereduaren arabera formularioa.

3.-Dirulaguntza ezin izango du eman laguntza sorrarazi duen egitatearen egileak edo indutzaileak.

11. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartu zen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte, eta, zehazki, honako hauek:

a.– Diruz lagundutako egoeraren xedeari edo izaerari edo laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzei eragiten dien ororen berri ematea laguntzak kudeatzen dituen organoari.

b.– Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako informazio guztia ematea, laguntzak fiskalizatzen dituztenean.

c.– Emandako laguntzari dagokionez gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailak egin ditzakeen egiaztapen-jarduketak onartzea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagozkienak ere.

12. artikulua.– Ez-betetzeak eta itzulketak.

1.– Laguntzaren onuraduna Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluko kasuetako batean badago edo dekretu honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan nahiz laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzetakoren bat betetzen ez badu, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen zuzendaritzaren titullarrak, dagokion ebazpenaren bidez, emateke dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea galdu duela eta jasotako zenbatekoak eta laguntza ordaindu zenez geroztik dagozkion legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar dizkiola adieraziko du, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren gainerako ekintzak. Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzak bermatzeko eta itzultzeko araubide orokorra arautzen duen eta dirulaguntza horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira dagozkien lege-ondorioetarako, eta erantzukizun-araubidea Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 64. artikuluan ezarritakoa izango da.

2.– Era berean, baldintzak bete gabe lortu bada laguntza, edo laguntza ematea eragotziko luketen egitateak edo datuak faltsutu edo ezkutatu badira hura lortzeko, jasotako zenbateko

guztiak itzuli beharko dira.

13. artikulua.– Dirulaguntzaren bateragarritasuna.

Laguntza jasotzea bateragarria da pertsona horiei berei legozkiekeen beste prestazio eta laguntza publiko edo pribatu batzuekin.

14. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, dekretu honetan aurreikusitako dirulaguntza finantzatzeko behar beste baliabide ekonomiko gorde beharko da urtero. Aurrekontu-ekitaldi batean eman daitezkeen laguntzen zenbatekoa ez da izango, guztira, aurrekontuetan ezarritakoa baino handiagoa, ezta, indarrean dauden legeen arabera aurrekontuetan aldaketak eginez gero, eguneratutako kopuru hori baino handiagoa ere.

2.– Baldin eta, diruz lagungarri izanik ere, ekitaldi horretako aurrekontu-kredituekin erantzun ezin zaien egoerei dagozkien laguntza-eskaerak badaude aurrekontu-ekitaldi batean, eskaera horiek hurrengo ekitaldiko kredituei esleitzeko aukera izango da eskaera berriz ere aurkeztu behar izan gabe, baldin eta dekretu honetan laguntzak lortzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte eskaera horiek.

3.– Laguntza deialdi irekiaren bidez emango zaie dekretuan xedatutakoa betetzen duten eskatzaile guztiei, eta eskaerak aurkezteko hurrenkeraren arabera ebatziko dira, espedientea osatzen den unearen arabera. Eskaera zuzentzeko edo osatzeko eskatu behar bada, aldaketa zein egun eta ordutan egin den hartuko da erreferentziatzat, aurkezteko hurrenkera kontuan hartuta.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Zuzeneko ekintza.

Dekretu honetan araututako dirulaguntza eta xedapen iragankorrean aurreikusitakoa zuzeneko ekintzatzat joko dira, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.c.1 eta 2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistarik Gabe bizitzeko Legearen Testu Bateginaren 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoari lotuta.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Ordainketa bakarreko laguntza berezia.

1.-Ordainketa bakarreko laguntza berezi bat aurreikusten da, 10.000 eurokoa. Baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak eskatu ahal izango dute, dekretu hau indarrean jarri eta gehienez ere 2 urteko epean:

a. emakumeen aurkako indarkeria matxistako ekintzen ondorioz ama hil zenean, adingabeak izatea;

b. amaren heriotza 2003. urtetik dekretu hau indarrean jarri aurreko urtera bitartean gertatu izana;

c. bai haiek bai ama heriotzaren unean EAEn bizitzea eta han erroldatuta egotea; eta,

d. laguntza eskatzean, EAEn bizitzea eta han erroldatuta egotea.

2.-Laguntza berezi hau onuradunak eskatuko du jarduteko ahalmena badu, edo bere ordezkaritza legala duenak.



Nolanahi ere, ordainketa bakarreko laguntza eskatzeko prozeduran, dekretu honetan aurreikusitako laguntza emateko ezartzen diren baldintza berak bete beharko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Erregelamendu bidez garatzea.

Gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak esleituta dituen saileko titularrari ahalmena ematen zaio dekretu hau garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren ekintzak egin ditzan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.- Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, ... (a)

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA



DECRETO XX/XXXX, de XX de XX, por el que se regula la ayuda económica para los hijos e hijas huérfanas de víctimas mortales de la violencia machista contra las mujeres.

El camino hasta alcanzar el reconocimiento de las personas menores de edad como víctimas directas de la violencia ejercida contra sus madres o tutoras que requieren de asistencia y protección integral no ha sido corto.

En los últimos años, el cambio de enfoque, de ser considerados meros testigos de la violencia ejercida contra sus madres, a ser considerados también víctimas directas de tal violencia ha producido avances legislativos, tales como la Ley Orgánica 8/2015, de 22 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia, que vino a modificar el art. 1.2 de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género, en virtud de la cual se reconoció expresamente que las y los menores también son víctimas de la violencia de género en el ámbito de las relaciones familiares.

Fundamentalmente, el reconocimiento como víctimas directas de la violencia ejercida contra sus madres o tutoras parte de aceptar que tal violencia les afecta y les condiciona tanto su bienestar emocional como su desarrollo personal. Los graves problemas de salud a los que se exponen con ocasión de vivir en un entorno violento, así como su instrumentalización para provocar daño y ejercer dominio sobre la mujer por parte de los agresores, les convierte indubitadamente también en víctimas. Además, la especial vulnerabilidad de las personas menores que se desarrollan en un entorno violento se incrementa cuando sus madres son asesinadas o mueren a manos de quien es su padre o de quien ha tenido una relación afectiva de pareja, con o sin convivencia.

